

EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

8 EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA Martxoaren 2017

GURE IRAULTZA ELKARREKIN DANTZA DEZAGUN

DIÀ INTERNACIONAL DE LA DONA TREBALLADORA

DIÀ INTERNACIONAL DA MULLER TRABALLADORA

DIÀ INTERNACIONAL DE LA MUJER TRABAJADORA



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia

@LKNCGT
www.cgt-lkn.org
rojoynegro.info

MARTXOAREN 8. EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Anarkosindikalistotik, pertsonen arteko harremanak merkataritza trukaketen menpe ez egotea eta ondorioz lan zapalkuntzarik ez izatea gustatuko litzaigukeela eta horren alde borrokatzen dugula gogora ekarri nahi dugu.

Merkatuaren legeen menpe dauden lan-harremanak desagertzea, eta autoantolaketari eta autogestioari bidea irekitzea nahi dugu, eta horrexegatik borrokatzen dugu.

Baina bitartean, guztion lanak eta bereziki emakumeonak, patriarkatuaren eta kapitalismoaren arteko lokarri bortitza diren heinean, kapitalaren gehiegikeriez babestu gaitzaten eskubide batzuk indarrean jarri behar ditugu.

2017ko martxoaren 8. honetan, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean, ondokoa adierazten dugu:

- ♀ Anarkofeministak izendatzen gara, eredu heteronormatibotik bereizten diren identitate guztiak gure ginez.
- ♀ Zerbitzu publikoen autogestioa defendatzen dugu eta telemarketinga, garbiketa, hezkuntza, osasuna... bezalako esparruetan gu, emakumeok, bereziki eragiten gaituen zerbitzu hoi en pribatizazioa salatzen dugu.
- ♀ Bizitza guztiek babestuak izatea merezi dutelako, soldaten arteko jauzia, jardunaldi bikoitzaren esplotazioa, gizarte zerbitzuetara, pentsioetara, hezkuntza feministara eta koheztzailera, berdintasun planetara zein kuotetara sarbide zailtasunak bezalako desberdintasunekin amaitzeko, bizitzaren alor guztietan ekonomia feminista indarrean jartzea defendatzen dugu.
- ♀ Emakume errefuxiatuen eta etorkinen eskubideak defendatzen ditugu.
- ♀ Soldata prekarioa eta prekarietatean bizi beharra salatzen dugu.
- ♀ Erligioen intromisioa salatzen dugu, horiek esparru publikoetatik ateratzea aldarrikatuz: hezkuntza, legediak, iritzi publikoa, hedabide publikoak...
- ♀ Mundu mailan faxismoaren gorakada salatzen dugu.
- ♀ Era guztietako sexu indarkeria ezabatuz, espazio seguruak aldarrikatzen ditugu.
- ♀ Emakume eta langile bezala jasaten dugun bazterketa bikoitzak jarraitzen duen heinean, omen dagoen berdintasuna faltsua denez, borroka feminista ezinbestekoa da.
- ♀ Emakumeak gizarte bidegabekeriara eta desberdintasunera ez gara egokitzen. Borrokatu dugu, borrokatzen dugu eta lortu arte borrokan jarraituko dugu. Duintasunetik, zintzotasunetik, alaitasuna eta bizitzeko grina galdu gabe egiten dugu. Emma Goldman-ek esaten zuen bezala " Dantzatu ezin badut, zure iraultza ez zait interesatzen".

GURE IRAULTZA ELKARREKIN DANTZA DEZAGUN!

EMAKUMEON ASKAPENIK GABE EZ DAGO IRAULTZARIK!

BIZIRIK, ASKE NAHI DUGU IZAN!